

## TXOSTENA

Aurretiko kontsulta publikoa, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea bide administratiboan egintzen berrikuspena egitearen arloan garatzeko erregelamendu berri bat onesteko foru dekretuari buruz.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, erregelamenduzko lege proiektu edo aurreproiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde nabarmenenek. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauak zer helburu dituen.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dokumentu honen xedea da gai horiei erantzuna ematea eta oinarri gisa balio izatea foru dekretuaren proiektua prestatu aurreko kontsultarako, hots, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea bide administratiboan egintzen berrikuspena egitearen arloan garatzeko erregelamendu berri bat onesteko foru dekretuaren proiektua prestatu aurreko kontsultarako.

Abenduaren 28ko 28/2016 Foru Legeak eta Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 27ko 16/2017 Foru Legeak derrigortu dute erregelamendu araua berrikustera, eta, horregatik, foru dekretuaren proiektu honen bidez erregelamendu berri bat onetsi nahi da Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea bide administratiboan egintzen berrikuspena egitearen arloan garatzeko.

Foru dekretuaren proiektu honek ditu artikulua bakar bat, aipatutako erregelamendua onesten duena, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Erregelamenduak, foru dekretuaren proiektu honen eranskinean jaso baita, 72 artikulua ditu, zazpi titulutan banatuak.

I. tituluak xedapen orokor batzuk ditu, berrikusteko prozedura guztiei aplikatzekoak, salbu prozedura zehatzei buruzko alderdi batzuetan.

II. tituluak, berraztertze errekurtsoari buruzkoa baita, berritasun garrantzitsu gisa sartzen ditu ez onartzeko berariazko zergatien xehatzea eta ebazpen espresa jakinarazteko ezarritako gehieneko epea handitzea.

III. tituluak, hiru kapitulutan banatua baitago, erreklamazio ekonomiko-administratiboak arautzen ditu. I. kapituluak azaltzen da zer gairi buruzkoak izan daitezkeen aipatutako erreklamazioak eta zer egintza aurkara daitezkeen. II. kapituluak arautzen du Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-administratiboaren antolaketa eta funtzionamendua; hori da erreklamazio ekonomiko-administratiboak ezagutzeko, tramitatzeko eta ebazteko ardura duen organo administratiboa. III. kapituluak jasotzen du zer prozedura jarraitu behar den aipatutako auzitegian.

IV. tituluak lantzen ditu berrikusteko prozedura bereziak, eta lau kapitulutan dago banatua. Kapitulu horiek arautzen dute erabat deusezak diren egintzen berrikuspena, tributua aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko egintzen errebokatzea, eta, azkenik, akats materialak, egitatezko akatsak eta akats aritmetikoak zuzentzeko prozedura.

V. titulua berrikuspeneko errekurtsio bereziari buruzkoa da, eta berritasun handiak dakartza aurreko arauketaren aldean.

VI. tituluak arautzen du errekurtsio eta ebazpen administratiboan betearazpena eta horrek ere berritasuna dakar erregelamendu bidezko arauketan.

Azkenik, VII. tituluak arautzen da egintza baten betearazpena eteteko edo zerga zor baten ordainketa geroratu edo zatikatzeko jarri diren bermeen kostuaren itzulketa, epai edo administrazio ebazpen irmo batek egintza edo zor hori bidegabea dela deklaratzeko badu.

Bestalde, xedapen iragankor bakarrak ezartzen du zer aplikazio izanen den erregelamendu hau indarrean sartu aurretik edo ondoren hasitako administrazio bideko berrikuspen prozeduretan.

Xedapen ingargabetzailek ezartzen du, zehazki, indarrik gabe gelditzen dela uztailaren 2ko 178/2001 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren berraztertze errekurtsioei eta aurkaratze ekonomiko-administratiboari buruzko Erregelamendua.

Azkenik, azken xedapenetako lehenak ogasunean eskuduna den departamentuaren titularrari gaikuntza ematen dio erregelamendua garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko, eta azken xedapen bigarrenak ezartzen du foru dekretua indarrean sartzen dela.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea bide administratiboan egintzen berrikuspena egitearen arloan garatzeko erregelamendua onesteko gaikuntza hemen ematen da: Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 27ko 16/2017 Foru Legearen azken xedapenetako lehenean.

Agiri hau interesdunen eskura jartzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atarian, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 eta 133.4 artikuluetan xedatuarekin bat (urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

Iruñean, 2018ko martxoaren 15ean

ARAUEN GARAPEN ETA AHOLKULARITZA

JURIDIKORAKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Javier Zabaleta Zúñiga